



ALKIZAKO SORMENAREN KABIA



AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Alkizako Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, artistek eta sortzaileek naturgune paregabe batean hausnartu, sortu, esperimentatu eta esperientziak partekatzeko ekimen bat jarri zuen abian 2018an: **SORMENAREN KABIA BEKA**.

Alkiza, bere kokapen geografikoagatik, gune estrategikoan dago: Hernio mendiaren magalean, Europako Natura 2000 Sare ekologikoaren baitan aitortutako eremu zoragarri baten erdian, Gipuzkoako bihotzean, herri giro lasaia eskaintzen du baina, aldi berean, kilometro gutxira ditu Donostia, Baiona, Bilbo naiz Euskal Herriko gainerako hiriburuak zein aireportuak ere. Hortaz, Alkiza euren proiektuak garatzeko toki lasaien bila ari diren artistentzat kokaleku aparta da.

Kultura eta arte-sorkuntza hirietatik deszentralizatu nahi ditu **Sormenaren Kabia beka** eta erakutsi nahi du landa-eremuko herri txikietan ere proiektu artistikoak gauzatu daitezkeela. Halaber, akuilua izan nahi du sorkuntza artistikoa gizarteratzeko eta artisten lanari ikusgarritasuna emateko.

Eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanari esker sortu da Sormenaren Kabia beka. Honakoak dira ekimen honen sustatzaileak: Alkizako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Fagus Alkiza interpretazio-zentroa, Alkizako Herri Ostaldea, Lete Apartamentuak, Inazio Urruzola Txakolindegia, Ekotalo eta Ur mara Museoa.

ZER ESKAINTZEN DU

- Aukeratutako proiektu bakoitzari 1.000 euroko diru-saria emango zaio. Irabazleek ez dute gastuak justifikatzeko ordainagiririk aurkeztu beharko.
- Alkizako Udalak Lete Apartamentuetako batean (<http://www.letealkiza.com/>) hiru asteko egonaldia eskainiko die hautatuei. Artista bakoitzak bere apartamentua izango du.
- Parte-hartzaileek Koldobika Jauregi eta Elena Cajaravilleren aholkularitza jasoko dute, hala nahi izanez gero.
- Antolakuntzak artisten eskura jarriko ditu proiektuen ezaugarrietara egokitzen diren lanerako espazioak.
- Antolakuntzak proiektu bakoitzeko ikus-entzunezko bana egingo du artistek Alkizan zer eta nola egin duten ezagutzera emateko. Irabazleek bideoak euren promoziorako erabili ahal izango dituzte, Alkizan jendaurreko aurkezpena egin ondoren.
- Hautatuek Alkizako ondare naturalaz gainera, bertako ondare kulturala ezagutu eta bizitzeko modua izango dute. Herriko ohiturak, tradizioak, eta nola ez, gure hizkuntza ezagutzeko aukera paregabea izango dute. Herri euskalduna da Alkiza, euskara da

nagusi herrian eta naturala da bertan euskaraz bizitzea. Alkizara datorrenak euskara ezagutzen ez badu, udalak hainbat baliabide eskainiko dizkio horretan laguntzeko: euskarazko oinarrizko hainbat kontzeptu ikasteko saio labur bat; euskarazko oinarrizko hiztegi txiki bat, eta nahi izatera, beste hainbat baliabide eskura jarriko zaizkio.

BEKAREN IRAUPENA

Hiru asteko iraupena izango du eta 2023ko iraila eta azaroa bitartean gauzatuko da. Antolakuntzak deialdian aukeratuak izan diren sortzaileekin adostuko ditu data zehatzak.

HAUTAGAIAK

Deialdian adinez nagusia den edonork parte hartu dezake, eskarmentu handikoa nahiz hasi berria izan. Sortzaileek bakarka zein taldean aurkeztu ditzakete euren proposamenak. Nolanahi ere, proiektua pertsona bakarraren izenean aurkeztuko da eta jasoko duen diru-saria 1.000 eurokoa izango da kasu guztietan.

Proiektuak edozein diziplina artistikotakoak izan daitezke: teknologia berriak, antzerkia, dantza, literatura, eskultura, kirola, bertsolaritza, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argazkilaritza, diseinua, moda eta abar.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Lanak beste inolako deialditara edo lehiaketetara aurkeztu gabeak izan beharko dira.
- Hautagaiak argi adierazi beharko dute landu nahi duten proiektuaren plangintza orokorra zein den eta Alkizako egonaldian zehar zehazki zer egingo duten. Hiru asteko epean egitasmo bat hasi eta bukatzea zaila dela jakina da. Hortaz, Alkizan bertan burutzeko moduko ideia bat, edota, proiektu jakin baten zati konkretu bat garatzeko proposamena aurkeztu daiteke.
- Proiektuak Sormenaren Kabiak eskaintzen dituen baliabide eta baldintzetara moldagarria izan beharko du.
- Sortzaileek antolakuntzarekin adostutako datetan Alkizan egon beharko dute. Baldintza hau beteko ez balute, 1.000 euroko saria eta egonaldian parte hartzeko aukera galduko lituzkete.
- Sormenaren Kaban parte hartuko duten sortzaileek, noiz edo noiz, nola lan egiten duten ikusteko aukera eskainiko diete herritarrei zein kanpoko bisitariei eta kazetariei; trukean ez dute aparteko ordainsaririk jasoko.
- Hautatutako proposamenak ezagutzera emateko, ikus-entzunezko bana ekoiztuko du antolakuntzak. Bertan, egonaldian zehar artistek zer egin duten, nola lan egin duten, herriarekin berarekin eta herritarrekin zer nolako harremana izan duten ikusi ahal

izango da besteak beste. Aldaketarik ezean, bideo hauek jendaurrean aurkeztuko dira 2023ko abenduaren 15ean. Artistek aurkezpen ekitaldian parte hartu beharko dute.

- Alkizako egonaldia amaitu ondoren, parte hartzen duten artista edo taldeek proiektuaren memoria bat aurkeztu beharko dute, Sormenaren Kabiaren webgunean argitaratuko dena, egoitzan egindako lanak eta prozesuak ezagutarazteko. Artistek Sormenaren Kabia Bekari esker garatu duten proiektua Alkizan bertan aurkeztu beharko dute antolakuntzarekin adostuko duten epe eta baldintzetan. Urtebeteko epea izango dute horretarako.

IRIZPIDEAK

- Proposamenak herriaren nortasunarekin koherentea izan beharko du. Hautagaiak aintzat hartu behar dute Alkiza landa-eremuko herri txiki euskalduna dela.

- Deialdian parte hartuko dutenek naturarekiko eta herritarrekiko errespetuz jokatu beharko dute. Hortaz, sorkuntza prozesuan ezingo dute ingurumenari kalte egin diezaiokeen materialik edo tekniarik erabili.

- Hautagaiak proiektuan parte hartzeko azaldu duen interesa baloratuko da.

- Sormenaren Kabiak eskaintzen dituen lan espazioetara eta baliabideetara egokitze moduko proposamena izan beharko da.

- Proiektuak herriko eragileak eta oro har, herritarrak aintzat hartzea baloratuko da.

IZEN-EMATEA

- **Izena emateko epea** 2023ko maiatzaren 24tik ekainaren 30era egongo da zabalik, bi egunak barne. Deialdiaren emaitzak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren webgunean jakinaraziko dira.

- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Izena emateko dokumentazioa postaz edo emailaz bidali daiteke. Izen-ematea egiterakoan hurrengoak aurkeztu beharko dira:

1. Datu pertsonalak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono zenbakia. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide moduan.
2. Proiektuaren deskribapena (gutxienez 500 hitz, gehienez 1.000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Egonaldirako aurreikusitako lan-egutegia.

5. CVa eta aurkezpen-eskutitza (gehienera 500 hitz) edota aurkezpen-bideoa (gehienera ere 2 minutukoa). Aurkezpen horretan parte hartzeko duen interesa edo motibazioa zein den azaldu beharko du.

- Eskatera **sormenarenkabia@gmail.com** helbide elektronikora egin daiteke.

- Mezuaren **gaian** jarri beharrekoa: Sormenaren Kabia Beka + hautagaiaren izen-abizenak.

- **Posta bidez bidaltzeko helbidea:**

Alkizako Udala

San Martin Plaza 12

20494 Alkiza

Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu bakarrean aurkeztuko da.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, aurkeztu ahal izango da. Dena dela, Alkiza herri euskalduna izanik, euskaraz dakiten hautagaiei euren proposamenak euskaraz igortzea iradokitzen zaie.

Hautatuek nortasun agiriaren edo pasaportearen kopia bat aurkeztu beharko dute 10 eguneko epean, aukeratuak izan direla jakinarazi zaien eguna aintzat hartuta.

JABETZA INTELEKTUALA ETA IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatuko dute.

Hautatutako sotzaileak Alkizako Udalari utziko dizkio proiektuari dagozkion irudi eskubideak, Sormenaren Kabiari buruzko jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo dena delakoetara, paperean zein modu digitalean argitaratzeko.

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Sormenaren Kabia proiektuko fitxategi batean sartuko dira. Aukeratutako artistak, antolakuntzari bere izena proiektu honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan aipatzeko baimena emango dio.

Parte-hartzaileek proiektu honen lan-guneetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, sare sozialak e.a) ager daitezkeela onartuko dute.

DATUEN BABESA

Parte-hartzaileek onartzen dute deialdi honen ondorioz emandako datu pertsonalak Alkizako udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartzea. Fitxategi horren helbidea San Martin plaza 12 da, deialdi hau kudeatu ahal izateko.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak posta elektronikoko bidez erabili ahal izango dira, dbo@alkiza.eus helbidera mezu bat bidalita, gaian datuak eskuratzeko eskubideak adierazita. Horrekin batera, datuen titularrak sinatutako gutun bat aurkeztu beharko da, jakinarazpenetarako helbide bat eta NANaren edo antzeko beste egiaztagiri baten kopia bat.

Deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar